

ZUMAIA / Udal liburutegia Oxford eraikiner eramango dute

Proiektua uztaila hasieran jaso dezake Udalak, eta zorte pixka batekin irailean ekingo diete lanei

Aritz Mutiozabal. Zumaia.

Orain arte Forondan zegoen udal liburutegia Oxford eraikiner jaitsiko dutela jakinarazi du Udal Gobernuak. Bai haurrena bai helduena, biak, behera ekarriko ditugu. Horrekin batera, ikasketetarako gunea ere jarriko dugu bertan; izan ere, egun liburuen kontsultak egiten dituztenak eta ikasten ari direnak batera daude, eta bakoitzak bere tokia behar du, zehaztu du Udaleko alkateorde eta Hirigintza zinegotzi Andoni Etxanizek. Era berean, Forondaren kokalekuak zalantza asko sortzen zizkigun: nolabait esateko, herritarrentzat urruti geratzen zen. Nik uste dut kultur etxea eta liburutegia herrian bertan edukitzeak beste dinamismo bat emango diola. Irisgarritasunaren aldetik, gainera, Erribera kalea egokiagoa da, gaineratu du Hirigintza zinegotziak.

Foronda, bestalde, herriko eragileentzat izango litzatekeela azaldu du Udaleko alkate Iñaki Agirrezabalagak: Natur Taldearentzat, Ostarrena zine klub elkartearentzat eta beste taldeentzat bilera gelak jarri nahi ditugu. Edonola ere, herrian dauden eraikin publikoen erabilera (Forondarena, Torreberrirena eta komentuarena, esaterako) herriko eragileen partaidetzarekin finkatzeko asmoa duela azpimarratu du Udalak, Oxford-ekin egin den moduan.

Aldaketak berriz idazten

Udaleko Kultura Batzordeak herriko eragileekin hainbat bilera egin ditu eta horietan adostu zen zer-nolako erabilera edo antolamendua izango duen Oxford eraberrituak. Bi erabaki hartu dituzte: batetik, liburutegia jartzearena; eta bestetik, musika taldeen entsegu lokalak ez egitearena, musikariek eurek hala eskatuta.

Hala, hasiera bateko proiektua idatzi zuen taldeari irizpide berriak eman genizkion, eta hauek proiektua berriz idazten ari dira une honetan. Aurrerapen bat pasatu ziguten eta herriko taldeak gustura geratu ziren horrekin. Behin betiko proiektua uztaila hasierarako izan dezakegula esan digute, adierazi du Andoni Etxanizek.

Aipatutako hilabeteen proiektua jaso eta Hirigintza Batzordetik pasatu ondoren, pleguak lehenbailehen egin eta abuzturako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu nahiko lituzke Udalak. Oporretatik bueltan, aurkeztu diren proposamenak jaso eta esleitu nahi ditugu. Zorte pixka batekin irailean hasi gaitezke lanean, baina aurretik proiektua jaso beharko genuke, azaldu du Udaleko arkitekto Luziano Pagaegik.